



Memoria Korporatiboa 2021

IMQ Igurco zu zaintzen



IMQ Igurco

Zuzendariaren gutuna



Santiago Canales

IMQ Igurcoko Zuzendari Nagusia

2021: Itxaropenaren urtea

Hilabete askotako ziurgabetasunaren ondoren, inolako zalantzarik gabe, itxaropen-dosia izan da COVID-19aren aurkako txertoa, hainbeste irrikatzen dugun normaltasuna berreskuratzeko.

Berri onak behar genituen. Eta pixkanaka-pixkanaka hasi dira iristen. Gaur egun, txertoa ohiko errealitatea da dagoeneko. Errealitate hori arrakastaz finkatu da, eta, pandemiaren aurkako protokoloekin batera, **IMQ Igurcoko egoitzak eta eguneko zentroak adinekoentzako etxe segurua dira gaur egun, inoiz baino gehiago.**

Txertaketaren arrakasta ukaezina izan da: babestutako pertsonen % 100 ingurura iritsi gara IMQ Igurcoko egoitzetako eta eguneko zentroetako erabiltzaileen eta profesionalen artean. Hala ere, ez diogu erne egoteari utzi behar. Birusak hortxe jarraitzen du kanpoan.

Erakundeak eta profesionalak koordinatu egin gara birusari aurre egiteko beharrezkoak diren babes-, prebentzio- eta zaintza-protokoloak eta -neurriak ezartzeko.

Egokitu zaigun alderdian, osasun-neurriak eta segurtasun-protokoloak zorrotz betetzeaz arduratu gara, hala nola, nahitaez maskara erabiltzea, distantzia soziala mantentzea edo espazioak eta gainazalak garbitu eta desinfektatzea. Adinekoen eta haien senideen arteko harremana ahalik eta gehien errazteko ere lan egin dugu, bisitetan murrizketak izan direnean. Gaur egun jarraitzen dugu hainbat jarduera indartzen, eguneratzen eta oraindik aldakorra den testuingurura egokitzen.

Horregatik, **IMQ Igurcoko egoitzak eta eguneko zentroak etxe segurua direla** esateko moduan gaude gaur egun. Etxe segurua adinekoentzat, haien senideentzat eta langileentzat.

Gainera, aurtun, inaugurazio zoriontsua izan dugu pandemiak ekarritako hainbesteko urduritasunaren artean. **Etxaniz** eguneko zentro berria ireki dugu Bilbon, inguruko 700 familiari baino gehiagori adineko pertsonak beren etxeetan zaintzeko gida eta laguntza eskaintzen diena.

Eguneko zentro horretan **EtxeTIC** proiektua abian jartzeko aukera izan dugu. Ekimen aitzindaria da, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren zein etxeko zaintzailearen bizi-kalitatea hobetzeko, **neurrira egindako arreta-eta zaintza-planaren** bidez.

Zalantzarik gabe, itxaropenaren urtea izan da 2021. Gure normaltasun irrikatua berreskuratzearekin amets eginarazi digu txertoak. IMQ Igurcon lanean jarraituko dugu normaltasun hori lortu arte, behar diren osasun neurriak aplikatuz, pandemia amaitu arte eta adinekoentzako eta haien senideentzako zaintza-eredu berritzaileak bultzatzen.

01 GU *04. orria*

02 IMQ TALDEA *06. orria*

03 GURE ADINEKOAK
ZAINZKEKO ERREFERENTEAK *07. orria*

04 GURE ZERBITZUAK *08. orria*

05 ETXETIC: TEKNOLOGIA, ZAINZAREN
ETA ONGIZATEAREN ZERBITZURA *17. orria*

06 ZURE ONGIZATEAREN
ALDE BERRITZEN *19. orria*

07 EZAGUTZAREKIN
KONPROMETITUAK *20. orria*

08 KOMUNIKAZIOA
HURBILTASUNETIK *22. orria*

09 EZAGUTU
NAHI ZAITUGU *23. orria*

01 GU



Adineko hauskorren edo mendekoen arretaren eragile eraldatzaile gisa aitortuak izan nahi dugu, gure zentroetan eta Euskadiko etxeetan baliozko laguntza-zerbitzuak sustatuz.”

Laguntza-eredu **dinamikoa eta diziplinartekoa**

IMQ Igurcon, laguntza-ereduak dinamikoa eta plastikoa izan behar duela deritzogu esku-hartzeko eta arreta emateko. Adinekoen behar erreal eta aldakorretara bideratutako sistema, aldaketa horien ondorioak ahal den neurrian aurreratuz eta minimizatuz.

Gure adinekoen **zerbitzura dagoen taldea**

Gure eredia diziplinartekotasunaren ideian oinarritzen da. Horretarako, profesional-talde kualifikatu bat daukagu, urtez urte haziz doana, asistentziaren kalitate-maila handia eta arreta profesionala, hurbila, pertsonalizatua eta gizatiarra bermatzeko.

Gure misioa

Zerbitzu soziosanitario onenak emateko lan egiten dugu. Adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko eta haiek eta haien senideek gizartearekin konprometitutako eta konektatutako talde baten esku daudela sentitzeko.

Gure ikuspegia

Adineko pertsona hauskorren eta/edo mendekoen arreta eraldatzen duen eragile gisa aitortuak izan nahi dugu, gure zentroetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan baliozko laguntza-zerbitzuak sustatuz.

Gure bezeroa aho bete hortz utzi nahi dugu, gure taldea konprometitu eta gizartearekin konektatu.

Gure balioak



BEZEROA maite dugu: Gure izatearen arrazoia da



AUSARTAK gara: Aurreratu egiten gara, etorkizuna zaintzen dugu



URBIL gaude: Konfiantza sortzen dugu, errespetua eta maitasuna eskaintzen ditugu



TALDE bakarra gara: Pasioa, etika, erantzukizuna eta konpromiso sozialarekin



PERTSONA GARAILEAK nahi ditugu: Ausartzen den jendea, eredugarriak



Beti **HOBETZEN:** Kaudimendunagoak, errentagarriagoak, eraginkoragoak

02 IMQ TALDEA

Profesionaltasuna, kalitatea eta zerbitzua

Igurcon harro gaude Euskadiko osasun-sektore pribatuko konpainia liderraren kide izateaz eta Estatuko garrantzitsuenetako bat izateaz: **IMQ Taldea**.

Osasunaren zerbitzura dagoen enpresa-talde indartsua

85 urtetik gorako esperientzia duen enpresa-talde indartsua da, eta partaidetza duten ia 60 enpresaren bidez garatzen du bere jarduera. Euskadin 375.000 pertsonari baino gehiagori osasun-estaldura ematen die, eta lan-osasunaren esparruan 140.000 langileri zerbitzuak ematen dizkie 5.400 enpresatan baino gehiagotan.

Euskadiko osasun-sare handiena

IMQ Taldeak, gainera, **2.400 profesionalak** eta Euskadiko osasun-sare pribatu zabalenak osatzen duten koadro mediko zabala du; **11 zentro propio** eta espezialitate mediko-kirurgiko ugari ditu eskura.

Etengabe hobetzen ari den osasun-talde bat

Produktuen aniztasunari, zentro eta klinika propio berriak etengabe irekitzeari eta hiru lurraldeetan aktiboki egoteari esker, bikaintasunarekiko, profesionaltasunarekiko eta zerbitzu-zaletasunarekiko konpromiso irmoarekin batera, IMQ Taldeak eskaintza integral bat bermatzeko aukera du. Bere bezeroek beren bizi-zikloan zehar izan ditzaketan behar guztiei erantzuna emateko eta **irtenbide pertsonalizatuak, berritzaileak eta kalitatezkoak eskaintzeko**.

03 GURE ADINEKOAK ZAIN- TZEKO ERREFERENTEAK

Lehen mailako zentroen
sarea, **zugandik oso gertu**



20 urteko
ibilbidea



+ 65 milioi
euro azpiegituretan

7

Egoitza
kopurua

10

Eguneko zentroak

28


Tutoretzapeko
apartamentuak

Eta egungo eta
etorkizuneko
profesionalik
onenak ditugu

Taldeko langileak



Praktiketako langileak



Plaza publikoak, pri-
batauk eta itunduak
ditugu **bezero**
bakoitzaren behar
zehatzei behar
bezala erantzun
ahal izateko

1.309 plaza guztira

Egoitza-zentroak: **876 ohe**

Eguneko zentroak: **332 plaza**


Tutoretzapeko apartamentuak: **50 plaza**

IMQ Igurco Araba ospitalea: **Egonaldi**
ertain-luzeko 35 ohe

04 GURE ZERBITZUAK

Urtetik urtera gero eta jende gehiagok jartzen du konfiantza gudan

IMQ Igurco Euskadiko **sektore sozio-sanitarioaren eragile nagusietako bat da**, eta lehen mailako zerbitzuak eskaintzen ditu, adineko pertsonen bi-zi-kalitatea hobetzera eta gaitasun fisiko eta kognitiboak ahalik eta gehien mantentzera bideratutako diziplina arteko arreta bermatzen duen profesional-talde baten eskutik.




Fakturazioa:
azken urteotako fakturazio-igoerarekin

Egoitza-zerbitzua

Gure egoitzek banakako asistentzia eta jarraipen medikoa, gaitasun fisiko, kognitibo, funtzional eta sozialei eusteko laguntza-programak eta eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza dituzte.

Urteko egonaldiak:



869
erabiltzaile,
batez beste,
egunean

■ Egoitzak
■ Eguneko zentroak

Gure egoitza soziosanitarioak



IMQ Igurco Araba



IMQ Igurco Bilbozar



IMQ Igurco Forua



IMQ Igurco
Jose Mª Azkuna



IMQ Igurco Orue



IMQ Igurco Unbe



Zugandik gertu daude adinekoak ahalik eta profesionaltasun handienarekin zaintzeko.”



IMQ Igurco Zorrozoiti

Gure eguneko zentroak

Arreta egokia eta profesionala eskaintzen dute adinekoei eta haien zaintzaileei laguntzeko.



Aboa Getxo



Bilbozar



Estartetxe Leioa



Etxaniz



Ondarroa



Otxarkoaga



Galdakao



San Adrián Bilbao



Ugao-Miraballes



Zorrozoiti

Zaintzaren kalitatea ziurtatua

20 urteko ibilbidean, IMQ Igorcok eboluzionatu egin du eta adinekoei arreta emateko eredia egokitu du, laguntzaren kalitatearen estandar berrietara moldatuz. Horri esker, hobeto identifikatzen dira gure zentroetan sartzen diren adinekoei eragiten dieten sindromeekin eta gaixotasunekin lotutako arriskuak. Ematen den laguntzaren kalitatearekiko konpromisoaren erakusgarri, IMQ Igorco hainbat arau eta ziurtagiri integratzen joan da bere kudeaketa-sisteman.

ISO 9001 - Kalitatearen kudeaketa



10 urte baino gehiagoko ibilbidearekin, Kalitatea Kudeatzeko Sistemak aukera ematen dio IMQ Igorcori zerbitzua **etengabe hobetzeko eta kalitate bikaina izateko** beharrezkoak diren baldintzak eta kontrolak definitzeko.

UNE 179003 - Arriskuen kudeaketa pazientearen segurtasunean



Pazientearen segurtasunarekin loturiko arriskuak kudeatzeko araua 2018an ezarri zen IMQ Igorco Orue zentroan, eta IMQ Igorco Unbe zentrora zabaldu zen 2021ean, **egoiliarrek izan ditzaketen arrisku espezifikoak identifikatzeko eta minimizatzeke**.

Libera-Care araua - Loturarik gabeko zentroak



Zaintza Duinak Fundazioak loturarik gabeko zentroen ziurtagiria eman zion IMQ Igorco Zorrozgoitiri 2018an, eta **ziurtagiri hori duen EAEko lehen egoitza** bihurtu zuen.

ISO 14001 - Ingurumen-kudeaketa



2021az geroztik, jasangarritasunaren, **baliabideen erabilera arduratsuen eta hondakinen kudeaketa eraginkorragoaren** bidez, Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria lortu du IMQ Igorcok.



“

2.300 lagunek baino gehiagok izan dute zaintza ulertzeko dugun moduz gozatzeko aukera.”


IMQ Laguntza eta IMQ Klinikak

IMQ Laguntzak gure ezagutza toki bakar batean batzen du, gure bezeroek eta senideek **zalantzak argitu eta sektore publikoan zein pribatuan dauden irtenbide soziosanitario onenak** lortu ahal izan ditzaten.

Zerbitzu paregabea merkatuan

Doako zerbitzu honen bidez, adinekoei eta haien familiei laguntzen diegu bizi-kalitatea hobetzeko erabakiak hartzen.

Leihatila bakarra da, eta **aurrez aurre, telefonoz edo posta elektronikoz** jo daiteke bertara.



IMQ Laguntzak aurrez aurre artatutako kontsulten bilakaera azken urteetan

2021an gehien kontsultatu diren gure zerbitzuak: jasotako kontsulta guztien %


Teleguntza	Suspertze Funtzionaleko Unitatea	Etxeko Laguntza	Egoitzak	Bestelako zerbitzuak
% 19	% 14	% 12	% 8	% 47

Etxeko Zainketen Plana


Gure talde profesionalen ezagutza gure erabiltzaileen etxeraino eramaten dugu, beren etxetik osasuna koordinatzeko, kontrolatzeko eta zaintzeko zerbitzu bat eskuratuz autonomia-maila handiagoa izan dezaten.

Telelaguntza

Urteko 365 egunetan 24 orduz funtzionatzen duen zerbitzua. Bakarrik bizi diren edo eguneko orduak konpainiarik gabe igarotzen dituzten pertsonentzat pentsatuta dago, eta talde profesional baten laguntza dutela sentitu nahi dutenentzat. Talde horrek, botoi bat sakatuta, larrialdi bat edo laguntza behar duen edozein egoera konpontzeko behar diren baliabideak mobilizatuko ditu.



Telelaguntza-zerbitzuaren onuradunen bilakaera



Errekuperazio Funtzionaleko Unitatea

Errekuperazio Funtzionaleko Unitatea (EFU) arazo akutu bat errekeratzeke fasean dauden eta errekeratu daitekeen autonomia-galera duten pertsonengan espezializatutako zerbitzua da.

Tratamendu asistentzial indibidualizatua

Geriatra batek zuzendutako diziplina anitzeko talde baten laguntzaz errehabilitazioa egin ondoren, pertsona etxera itzul daiteke, eguneroko bizitzako oinarriko jardueretan **batez beste 20 puntuko autonomia hobetuta**.

	2017	2018	2019	2020	2021
Orue	12.997	13.191	13.870	16.854	15.641
Unbe	7.227	9.446	9.974	7.121	7.748
Araba	-	-	-	-	4.880

Orue, Unbe eta Arabako EFU unitateko egonaldi kopurua

Ortojeriatria

Aldakaren, ornoen, sorbaldaren eta abarren hausturak.

Neuro-errehabilitazioa

Istripu zerebro-baskularrak (iktusa).

Susperraldiak

Ospitalean edo etxean egonaldi luzeak egin ondoren, gaitasun funtzionalaren galera prebenitzeko edo hobetzeko.

Zainketa aringarriak

Bizi-itxaropen mugatuko egoeran dauden pazienteentzako **zainketa integralak**.

Pazienteen eta haien senideen bizi-kalitatea hobetuko duten zainketa aringarri erabatekoak, aktiboak eta jarraituak ematera bideratutako jarduketak egiten ditugu.

IMQ Igorco Araban izandako egonaldi kopurua:

Zainketa aringarrietako egonaldiak

2020	2021
3.872	2.082

Bizitzaren amaierako zaintzak

Laguntza profesionala, pertsonalizatua eta integrala eskaintzen dugu, pertsona bakoitzaren premiei erantzuten diena, eta **pertsonen duintasunarekiko errespetua eta giza tratua** bermatzen dituen gaixotasun aurreratu, progresibo, sendaezin eta tratamendu espezifikoari erantzuteko aukerarik gabeko kasuetan edo berehalako heriotzaren kasuan.

Paziente kronikoentzako arreta

Lehen mailako gure profesional-taldeak erabiltzaile bakoitzaren **etengabeko jarraipena** egiten du, gaitz kronikoak dituztenek **tratamendu indibidualizatu** izan dezaten, eta haien bizitzaren gaineko kontrola itzul diezaieten.

IMQ Igorco Araban izandako egonaldi kopurua:

Paziente kronikoa artatzeko egonaldiak

2020	2021
1.462	724

Balorazio geriatriko integrala

Patologia ugari eta sendagai askoren kontsumoa dituzten pertsonentzat edo eguneroko bizitzan eragina duten narriadura funtzional kognitibo emozionala dutenentzat pentsatutako zerbitzua da.

Diziplina anitzeko profesional-taldea

Pazientearen arazo nagusiak aztertzen ditu, eta, azterketa horren emaitzetan oinarrituta, **zainketa integraleko plan bat** ezartzen da, pazientearen bizi-kalitatea hobetzeko.



Azterketa / 3 eguneko ospitaleratzea

1 Fisioterapia eta terapia okupazionala	2 Medikua geriatria eta erizaintza
3 Gizarte-lana	4 Psikologia


IMQ Igarurko Unbe eta IMQ Igarurko Orue zentroak

Geriatriako kontsultak

Kontsulta horretan, **geriatriako mediku espezialista** bat arduratzen da 65 urtetik gorako pertsonen gaixotasun fisiko, mental, funtzional eta sozialez. Gaitz horiek kronikoak izan daitezke edo baliaezintasuna eragin dezakete.



Kontsulta honen helburu nagusia erabiltzailearen **autonomia-galera prebenitzea edo hobetzea da.**”



Geriatrico kontsulten bilakaera

05 ETXETIC: TEKNOLOGIA, ZAINZAREN ETA ONGIZATEAREN ZERBITZURA

Bizi-kalitatea hobetzeko ekimen aitzindaria

Aurten Etxaniz ireki dugu, eguneko zentro berria Bilbon, eta bertan EtxeTIC proiektua abian jartzeko aukera izan dugu: ekimen aitzindaria da, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren zein etxeko zaintzailearen **bizi-kalitatea hobetzeko, teknologia berrien eta berrikuntzaren bidez.**



Etxaniz eguneko zentro berria

Konbinatu egiten ditu eguneko zentro bati dagokion arreta eta beren etxeetan bizi diren eta mendekotasun-egoeran dauden bolumen handiago bati ematen zaion arreta, **etxean laguntzeko eta prebenitzeko teknologien bidez monitorizatu-ta, eta aldi batzuetan zentrorra joanda.**

Etxaniz zentroak **800 m² erabilgarri ditu kalean bertan**, duela gutxi berrituak, bai eta pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako instalazioak ere.

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Erizaintzako gela • Hiru bainugela geriatriko • Jantokia • Sukaldea | <ul style="list-style-type: none"> • Bulegoak • Jardueretarako eta atsedenerako hornitutako gune zabala • Ekipamendu espezifikoak teknologia bidezko esku-hartzeetarako |
|--|--|

Etxean zaintzeko plana (EZP)

Etxean bizitzen jarraitzeko laguntza-zerbitzu berritzailea, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko.



Erabiltzailea

Mendekotasuna duen
personarentzako
laguntza-programak

Sanitarioak

Funtzionalak

Neuropsikologikoak



Zaintzailea

Zaintzailearentzako
laguntza-programak

Prestakuntza

Informazioa
eta aholkularitza

Nork bere burua
zaintzeko jarduerak

Laguntza emozionala

Atsedeen-programak



Haratago joan behar dugu eta **etorkizuneko zentroak eta zerbitzuak sortu. Teknologia, etxean jarraitzea eta prebentzioa** bultzatu behar dira etorkizunean.””

06 ZURE ONGIZATEAREN ALDE BERRITZEN

Osasun-laguntzaren abangoardian

IMQ Igurcon konpromisoa dugu osasuna etengabe hobetzeko eta adinekoak zaintzeko; horregatik, berrikuntza- eta ikerketa-proiektuetan parte hartzen dugu, hirugarren adinekoentzako **laguntza-teknologian azkena** eskaini ahal izateko.

Gaueko monitorizazioa

Gaueko deambulazioa kontrolatzeko egoiliarren gau-monitorizazio proiektua IMQ Igurco Zorrozgoitin.

Hauskortasuna hauteskeleto bidez

Adineko pertsonen hauskortasunaren identifikazioa automatizatzeko azterlana exoeskeletoaren bidez IMQ Igurco Bilbozarren.

Berrikuntza irekiaren erronka

Berrikuntza irekiko BIOD! Erronkaren abiaraztea Beaz Bizkaiarekin batera. Ariketaren eta errehabilitazioaren bidez disfagiatik eratorritako arriskuak murriztuko dituen irtenbide berritzaile baten bila, indarrean dauden nutrizio-tratamenduak osatuz.

Nagusi Intelligence Center

Nagusi Intelligence Centre-ri (NIC) atxikitzea, zahartzean, osasunean eta iraupen luze-ko zaintzetan Bizkaian I+G+B arloan aitzindaria den posizio-namenduaren helburuak lortzen laguntzeko.

07 EZAGUTZAREKIN KONPROMETITUAK

Elkarlanean **zu zaintzeko**

Zerbitzu soziosanitarioen erakunde gisa, IMQ Igurcon uste dugu irakaskuntza, zentro anitzeko ikasketak eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak ezinbestekoak direla **kalitatezko arreta eta zaintza** emateko.

Ospitaleak: Galdakao-Usansolo, Gorliz, Urduliz eta Santa Marina.

Erakunde Sanitario Integratuak (ESI): ESI Barrualde-Galdakao, ESI Bilbao-Basurto, ESI Uribe batzorde soziosanitarioko partaideak.

Unibertsitateak: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Europako Unibertsitatea, Gaztela-Mantxako Unibertsitatea.

Lanbide Heziketako ikastetxeak: Zornotza LHI, Somorrostro LHI, Iurreta LHI, Francisco de Vitoria BHI.

Fundazioak eta gizarte-erakundea: Claret Sozial Fondaio Fundazioa, EDE Fundazioa, Bagabiltza, Gaztaroa Sartu...

Ikerketa zentroak: Bioef (Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioa), Biocruces (Ezkerralde Enkarterri ESiko Osasun Ikerketako Institutua).

Etorkizuneko gizartea prestatzen

2021ean ere irakaskuntzarekin konprometituta jarraitu dugu **gure master unibertsitarioen bidez:**

Zahartze Osasuntsuari eta Bizi-kalitateari buruzko Masterra
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioako campusa

Gerontologiako Unibertsitate-masterra
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

Biltzarrak eta jardunaldiak

- Naiara Fernandez doktoreak parte hartu zuen Alzheimerren IX. Biltzar Nazionalan 2021eko azaroan, **“Zero omisio: esku-hartze integrala demenzia duen pertsonarengan”** hitzaldiarekin.
- Naiara Fernandez doktoreak parte hartu zuen XIX. Zahartzarora Biltzarrean **“Ezagutza eguneratzen eta bizitza normalizatzen”, Diabetes mellitus: eguneratze terapeutikoa** hitzaldiarekin.
- Espainiako Geriatria eta Gerontologia Sozietatearen (SEGG) II. Biltzar Birtualean parte hartu zen **“Idorrerria: sindrome geriatrikoa inpaktuarekin”** hitzaldiarekin.
- Naiara Fernandez doktoreak eta Iñaki Artaza doktoreak parte hartu zuten **Giza Zientzien XLVIII. Astean, Pandemia garaian adinekoei ematen zaien arreta humanizatuz** gaiari buruzko hitzaldiarekin.
- Hitzaldia AKEB Konekta VI. jardunaldian: **“Sistema berrabiarazten: agertoki berriak, erronka berriak”**, honako komunikazio hauekin: **“Aplikazio mugikor bat ezartzea zentro soziosanitarioetan ingresatutako pertsonen senideekiko komunikazioa optimizatzeke”** eta **“Komunikazioa digitalizatzea zuzeneko arreta ematen duten langileen artean zentro soziosanitarioetan”**.
- SEGren II. Biltzar Birtualean parte hartu zen, **Adinekoen balorazio integralerako Behatoki Nazionalan** parte hartuz, **“2021: Zahartzarorako erronka berriak”** hitzaldiarekin.

Argitalpenak nazioarteko aldizkarietan

- 1 **“Relationship between negative stereotypes toward aging and multidimensional variable in older people living in two different social environments”** artikuluan egindako ekarpena, ARCHIVES OF GERONTOLOGY AND GERIATRICS-en argitaratua (The Impact Factor of this journal is 3.250, ranking it 33 out of 53 in Geriatrics & Gerontology), Borja Doncelen doktore-tesian oinarritua. IMQ Igurcoko zentro guztiek parte hartu dugu tesi horretan.
- 2 **“Exergaming delivery of a balance and fall prevention program for older helduak: a retrospective comparison with conventional care”** artikuluan egindako ekarpena, DIGITAL HEALTH aldizkarian argitaratu dena, Monte Sinai eta Evolv Medikuntza Fakultateko Errehabilitazio Sailarekin lankidetzan.

08 KOMUNIKAZIOA HURBILTASUNETIK

Gure jakinarazpenak
+1625 hartzailerengana
iristen dira

2020	2021
+ 405 Langile	+ 425 Langile
+ 593 Senideko	+ 841 Senideko
+ 206 Preskriptore	+ 359 Preskriptore

139
Albiste

75
Barne ohar

26
Jakinarazpen senideei

2020ko bidalketak guztira: **130** 2021eko bidalketak guztira **240**

+%85

APP Egoitza gardenak

Familiak **denbora errealean** jakin ahal izango dituzte egoiliarren egoerari eta zaintzari buruzko berrikuntza guztiak.

- Eguneroko jarraipena: jarduerak.
- Arreta- eta zaintza-plana.
- Tratamendu eguneratua.
- Konstanteak eta neurriak.
- Online hitzorduak.
- Komunikazio korporatiboak.
- Gorabeherak.

APP-aren erabiltzaileak



792
Senide



573
Egoiliar

%63

APPa duten
egoiliarrak

09 EZAGUTU NAHI ZAITUGU

Gure zentroak zure zerbitzura daude, baina **zentroen muina zeu zara**

Dei bat egin edo e-mail bidez idatz diezagukezu, eta gure zerbitzuei buruzko informazioa emango dizugu. Zure zalantza edo kontsulta guztiei erantzungo diegu. Gure zentroetako edozeinetara ere hurbil zaitezke, eta gustura hartuko zaitugu.

IMQ Informazioa eta Harremana

Tel. 94 662 04 00 · imqayuda@igurco.es
Maximo Aguirre k. 18 bis, 4. solairua
48011 Bilbo (Bizkaia)

IMQ Igurgo Egoitzak

Bilbozar

Tel. 94 679 27 41
Vitoria-Gasteiz k. 12
48003 Bilbo (Bizkaia)

Forua

Tel. 94 625 60 73
Elexalde auzoa, 34
48393 Forua (Bizkaia)

Jose M^a Azkuna

Tel. 94 630 99 55
Jose Antonio Aguirre k. zk.g.
48340 Amorebieta
(Bizkaia)

Orue

Tel. 94 630 05 50
Dudeako San Migel
auzoa, zk.g.
48340 Amorebieta-Etxano
(Bizkaia)

Unbe

Tel. 94 453 70 02
Gorri bidea, 2
48950 Erandio (Bizkaia)

Zorrozoiti

Tel. 94 474 25 36
Zorrozoiti bidea, 23
48013 Bilbo (Bizkaia)

Araba

Tel. 945 14 21 00
Salbaterrabide kalea, 9
01007 Vitoria-Gasteiz
(Araba)

IMQ Igurco Eguneko Zentroak

Aiboa Getxo

Tel. 94 465 94 44
Ormetxe k. 22
49992 Getxo (Bizkaia)

Bilbozar

Tel. 94 679 27 41
Vitoria-Gasteiz k. 12
48003 Bilbo (Bizkaia)

Estartetxe Leioa

Tel. 94 480 35 68
Estartetxe k.e 2, 4, 6 Behea
48940 Leioa (Bizkaia)

Etzaniz

Tel. 94 662 05 35
Marcelino Oreja kalea, 3
48010 Bilbo (Bizkaia)

Ondarroa

Tel. 94 603 60 63
Iñaki Deuna k. 21 Behea
48700 Ondarroa (Bizkaia)

Otxarkoaga

Tel. 94 459 81 54
Zizeruene k. 4
48004 Otxarkoaga (Bizkaia)

Plazakoetxe Galdakao

Tel. 94 457 34 91
Plazakoetxe, 3. txaleta
48960 Galdakao (Bizkaia)

San Adrián

Tel. 94 470 07 06
San Adrian etorb. 33, 35,
37 Behea
48003 Bilbo (Bizkaia)

Ugao-Miraballes

Tel. 94 648 29 52
Udiarraga 79 Behea,
El Jaro auzoa
48490 Ugao-Miraballes

Zorrozoiti Zorroza

Tel. 94 425 36 54
Zorrozoitibidea k. 23
48013 Bilbo (Bizkaia)

20 años
urte

IMQ Igurco
Zu zaintzen

Lanean dihardugu adineko pertsonak eta haien senideek esku onetan daudela senti dezaten.

2021eko Memoria Korporatiboa

**¡CUENTA
CONMIGO!**

**KONTATU
NIREKIN!**